

**ARAUDIA, BERRIZKO UDALERRIAN
BIZTANLEGUNEETAKO ENTITATEEN, ENTITATE
SAKABANATUEN, INDUSTRIALDEEN ETA UDAL
ERAIKINEN IZENAK, ZENBAKIAK ETA
ERROTULAZIOA ARAUTZEN DITUENA.**

**NORMATIVA REGULADORA DE
NOMENCLATURA, NUMERACIÓN Y ROTULACIÓN
DE ENTIDADES DE NÚCLEO DE POBLACIÓN,
ENTIDADES DISEMINADAS, POLÍGONOS
INDUSTRIALES Y EDIFICIOS MUNICIPALES EN
EL MUNICIPIO DE BERRIZ.**

AITZINSOLASA.

PREÁMBULO.

Ordenantza honen zioa da Berrizko udalerriko kaleak eta bide publikoak izendatzeko eta errotulatzeko irizpideak arautzea, Toki Araubidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legearen 25 d) artikulua eta lege horri ondoren egindako aldaketek egotzitako udal eskumenean oinarriturik.

El motivo de la presente ordenanza es la de normalizar los criterios de nomenclatura, rotulación de calles y vías públicas en el término Municipal de Berriz, en base a la competencia municipal atribuida por el artículo 25 d) de la Ley 7/1985 y sus posteriores modificaciones de la denominada Ley de Bases de Régimen Local.

Konstituzioaren 140. artikulua bermatzen du udalerrian autonomia, eta horretan ulertu behar dugu toki-entitateei dagokiela udalerrian kale, plaza, zeharkale, parke, biribilgune, pasealeku, industrialde, udal eraikin edo antzekoei izena emateko eskumena, eta, horrenbestez, toki-entitateei dagokiela haien zenbakiak eta izenak ezartzeko eta aldatzeko eskumena, gainerako garapen-araudia betez.

El artículo 140 de la Constitución consagra la autonomía municipal y en el debemos entender que reside la competencia de la Entidades Locales en orden al establecimiento de la denominación de la calle, plaza, travesía, parque, glorieta, paseo, travesía, polígono industrial, edificio municipal o análogo en el término municipal, y por tanto, al establecimiento y modificación de su numeración y denominación con cumplimiento de la demás normativa de desarrollo.

2007an Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen 9. Konferentziak ebazpenean toponimoak kultura-ondare ukiezin direla zehazten du. Horrek esan nahi du, Estatuek toponimia babesteko neurriak hartu behar dituztela.

La 9. Conferencia sobre Normalización de Nombre Geográficos de la ONU en el 2007 determina que el patrimonio cultural de los topónimos es irrefutable. Esto es, los estados deben adoptar medidas para la protección de los topónimos.

Udalak toponimia lanei ekin zion 2008ko urtean. Ordenantza honek garatzen du, beraz, Udalaren osoko bilkurak izendapenak eta aplikazio-irizpideak ezartzeko 2000ko abenduaren 22an hartutako erabaki hura. Orduko irizpideak kontuan hartu dira ordenantza hau egiteko, Berrizko udalerraren oraingo egoera errealer egokituz eta industrialdeak eta udal eraikinak izendatzeko irizpideak handituz.

Este Ayuntamiento, en el 2008, comenzó los trabajos de toponimia. La presente ordenanza no es sino el desarrollo y mejora de aquel trabajo, para establecer la denominación y criterios de aplicación. Los criterios tomados se han tenido en cuenta para realizar la presente ordenanza, adaptando a la situación actual y real del municipio de Berriz, así como la ampliación de criterios para la denominación de polígonos industriales y edificios municipales.

Ordenantza honi aplikatzekoak izango dira Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapearen Erregelamenduaren 75. artikulua; Hauteskunde-araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 35. artikulua; eta Estatistikako Institutu Nazionalako presidentek eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak elkarrekin emandako Ebazpena, Udal Errolda kudeatzeko eta berrikusteko jarraibide teknikoak ezartzen dituen udalantzat.

Serán de aplicación a la presente ordenanza, lo dispuesto en el artículo 75 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial, el artículo 35 de la Ley orgánica 5/1985 de 19 de junio del Régimen Electoral General y la Resolución de 9 de abril de 1.997, conjunta de la Presidenta del Instituto Nacional de Estadística y del Director General de Cooperación Territorial, por la que se dictan instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre la gestión y revisión del Padrón municipal.

I. KAPITULUA.

CAPITULO I.

XEDAPEN OROKORRAK, ESKUMENA ETA APLIKAZIO-EREMUA.

DISPOSICIONES GENERALES, COMPETENCIA Y ÁMBITO. DE APLICACIÓN.

1. artikulua.

Artículo 1

Ordenantza honek xedetzat du Berrizko udalerrian kale, plaza, zeharkale, parke, biribilgune, pasealeku, industrialde, udal eraikin edo antzekoak errotulatzeko eta zenbakiak eta izena jartzeko irizpideak arautzea. Ulertuko da haiek guztiak aplikazio-eremu publikoa dutela.

La presente ordenanza tiene como objeto regular los criterios de rotulación, numeración y denominación de barrio, calle, plaza, travesía, parque, glorieta, paseo, polígono industrial, edificio municipal o análogo, en el término municipal de Berriz. Se entenderán todas ellas bajo la denominación de ámbito público de aplicación.

2. artikulua.

Artículo 2

Berrizko Udalaren eta beronen organo erabakitzaileen eskumen eskusiboa izango da izena, zenbakia eta errotulua jartzea aplikazio-eremu publikoan, Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eta beronen aldaketen ondoriozko eskumenek ezarritako eskudantzien arabera

Serán de competencia exclusiva del Ayuntamiento de Berriz y sus órganos de decisión, conforme a las atribuciones establecidas por las competencias derivadas de la Ley 7/1985 de 2 de abril de Bases de Régimen Local y sus posteriores modificaciones la denominación, numeración y rotulación en el ámbito público de aplicación.

3. artikulua.

Artículo 3

Entitate publikoek edo pribatuek ezar ditzaketen beste edozein izen, zenbaki eta errotulazio ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira eta izenak, zenbakiak eta errotulazioak ez dira ofizial

Cualesquiera otras denominaciones, numeraciones y rotulaciones que se puedan realizar por entidades públicas o privadas quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente ordenanza y no podrán

izango, Berrizko Udalak baimena eman arte.

4. artikulua.

Ordenantza honen eta aplikagarri diren gainerako arauen arabera hartutako erabakiek baino ez dute ofizialtasuna eta balioa izango lege-ondorio guztietarako, eta nahitaezkoa izango da erabiltzea

II. KAPITULUA.

PROZEDURA.

5. artikulua.

Prozedura has daiteke ofizioz edo norbanakoek, taldeek edo interesdunek hala eskatzen badute

6. artikulua.

Prozedura norbanakoen, taldeen edo interesdunen eskariz irekitzen badute aplikazio-eremu publikoaren izena, zenbakia edo errotulazioa sortu berri delako edo aldatu delako, ezin saihestuzkoa izango da eskaera bat egitea eta hari honako hauek eranstea:

- a) Eskabide orria betetzea, Alkatetza-Udalburuari zuzendua, dagokion elementua edo elementuak sortzeko edo aldatzeko zioak edo arrazoibidea adieraziz.
- b) Dagozkion etxebizitzien edo eraikinen planoak eta 1/100 eskalako kokapen-planoak.
- c) Dagozkion eraikinari edo eraikinei buruz Udalak emandako hirigintza-lizentziaren kopia bat, halakorik badago.

ostentar el carácter oficial de la denominación, numeración o rotulación, sin autorización expresa del Ayuntamiento de Berriz.

Artículo 4

Solo aquellos acuerdos tomados en virtud de la presente ordenanza y demás normativa de aplicación, tendrán carácter oficial y validez a todos los efectos legales y su uso será obligatorio

CAPÍTULO II.

PROCEDIMIENTO.

Artículo 5

El procedimiento puede iniciarse de oficio o bien por personas particulares, colectivas o personas interesadas.

Artículo 6

En caso de abrirse el procedimiento por personas particulares, colectivas o personas interesadas, por nueva creación o por modificación de la denominación, numeración o rotulación del ámbito público de aplicación, será inexcusable que se cumplimente la solicitud, incluyendo los siguientes aspectos:

- a) Rellenar el impreso de solicitud dirigida a la Alcaldía-Presidencia, en la que se exprese la motivación o razonamiento de la creación o modificación del elemento o elementos a afectar.
- b) Plano de las viviendas o edificios afectados y plano de situación a escala 1/100.
- c) Si lo hubiere, copia de licencia urbanística concedida por el Ayuntamiento relativa a la edificación o edificaciones a que se refiere.

7. artikulua.

Prozedura ofizioz hasten bada, dagokion sailak proposatuta hasiko da eta espedientea irekiko da une bakoitzean indarrean dagoen legearen arabera, aplikazio-eremu publikoan izena, zenbakia edo errotulua emateko.

III. KAPITULUA.

ZENBAKIAK.

8. artikulua.

Zenbakiak irizpide hauen arabera jarriko dira:

- a) Biztanle guneetako entitateei dagokienez:
1. Hiri-bideetan, sarrera nagusi edo aparteko guztiek izan beharko dute zenbakia, baldin eta sarbidea ematen badiote etxebizitzari, udal eraikinei edo lokalei, hauen erabilera kontuan izan gabe. Ez da zenbakirik jarriko bigarren mailako sarreretan edo etxabeetan, ezta taberna, denda, merkataritza-lokal garaje edo antzekoetan; halakoek beren eraikineko sarrera nagusiaren zenbakia eta izena izango dute.
 2. Zenbaki bikoitiak modu jarraituan egongo dira kalearen eskumako aldean, eta bakoitiak, ezkerreko aldean. Zenbakiak Udaletxetik hurbilen dagoen muturretik edo sarreratik hasiko dira jartzen. Kalearen alde batean eraikinik ez badago, zenbakiak hurrenez hurren jarri ahal izango dira. Puntu hau ez da beteko, hirigunean zenbakien berrantolaketa ikerketa egin arte.
 3. Eraikin berriren bat egitearen ondorioz, zenbakiren bat errepikatzen bada, letraren bat (A, B, C...) gehituko zaio zenbaki komunari, eraikinak dauden bideko

Artículo 7

En caso de abrirse el procedimiento de oficio, será a propuesta del área correspondiente, abriéndose expediente según la ley en vigor en cada momento a fin de denominar, numerar o rotular en el ámbito público de aplicación.

CAPÍTULO III.

NUMERACIÓN.

Artículo 8

La numeración atenderá a los siguientes criterios:

- a) En caso de entidades de núcleos de población:
1. En las vías urbanas deberá estar numerada toda entrada principal o independiente que dé acceso a viviendas, edificios municipales y/o locales, cualesquiera que sea su uso. No se numerarán las entradas accesorias o bajos como bares, tiendas, locales comerciales, garajes o análogos, las cuales tendrán la numeración y denominación de la entrada principal del edificio al que pertenece.
 2. Los números pares estarán de forma continuada en la mano derecha de la calle y los impares en la izquierda. La numeración partirá desde el extremo o acceso más próximo al edificio consistorial. En razón a la no existencia de edificaciones en uno de los lados de la calle, se podrá otorgar la numeración de forma correlativa. La aplicación de este punto queda pendiente hasta la realización de un estudio de reordenación de números en la zona urbana.
 3. En caso de que la construcción de edificios nuevos interfiera en el duplicado de número, estos llevarán consigo una letra A, B, C... al

zenbakien hurrenkera ez hausteko.

4. Gertatu ahal izango da zenbakiak hurrenez hurrenekoak ez izatea eraikinetan, baldin eta eraikinen artean oruberik badago eta orubeetan eraikuntzak egiteko aukera egon ezker, etorkizunean.

b) Entitate sakabanatuei dagokienez:

1. Eraikinek, etxeek edo baserriek zenbakia eduki beharko dute ipinita. Haien bideen, errepedeen edo beste guneren baten luzeran badaude, zenbakiak hiriguneko kaleen antzera jarriko dira. Aitzitik, erabat sakabanatuta badaude, zenbakiren bat izan beharko dute entitatearen barruan, ordenantza honetan ezarritako irizpideen eta arazoizkotasun-irizpideen arabera.

c) Entitateak, industrialdeak badira:

1. Industrialdeen barruan kokatutako etxebizitzek zenbakia izango dute eta entitate sakabanatueterako ezarritako irizpidea erabiliko da.
2. Zenbakiak bat etorriko dira Hiri-antolamenduko plan orokorrean, plan partzalean eta birpartzelatze-proiektuan ezarritako izenekin.

IV. KAPITULUA.

IZENAK.

9. artikulua.

Udalak II. kapitulan izenei buruz aipatutako espedienteen izapideak egiten dituztenean, irizpide hauek erabiliko ditu:

- a) Pertsonen edo ospetsuen izenak: Udalerri

número común, con el fin de no romper la serie numérica a la vía a la que pertenecen.

4. La numeración podrá no ser correlativa entre edificaciones en los caso de que existan solares entre ella, en la que en el futuro puedan existir construcciones.

b) En caso de entidades diseminadas:

1. Los edificios, casas o caseríos deberán estar numerados. Si estuvieran distribuidos a lo largo de caminos, carreteras u otras vías, serán numeradas de forma análoga a las calles de un núcleo urbano. Por el contrario si estuvieran totalmente dispersos deberán tener una numeración dentro de la entidad siguiendo los criterios establecidos en la presente ordenanza y de racionalidad.

c) En caso de entidades como polígonos industriales:

1. Las viviendas ubicadas dentro de los polígonos industriales tendrán número, y su criterio se regirá según lo dispuesto en las entidades diseminadas.
2. La numeración corresponderá con la denominación que se imponga en el Plan General de Ordenación urbana, Plan Parcial y el Proyecto de Reparcelación.

CAPÍTULO IV.

NOMENCLATURA.

Artículo 9.

El Ayuntamiento en la tramitación de los expedientes a que se refiere el Capítulo II en relación con la nomenclatura, atenderá a los siguientes criterios:

- a) Nombre de personas o personalidades:

honetako bizilagun edo esker oneko pertsonak, udalerriarekin hartutako ohiz kanpoko merituengatik, jatorriz Berrizkoak izan ala ez. Gutxienez hamar urte eman behar dira hiltzen denetik izena erabili arte.

- b) Baserri izenak: Udalerrian edo izendatu beharreko tokitik hurbil galduta dauden baserrien izen normalizatua jarri ahal izango da. Horretarako, Udala toponimia-azterketaren batean edo antzekoetan oinarrituko da, baserri izenaren jatorria bermatzeko (I. Eranskina).
- c) Toponimoak, ohiturazko izenak: Jarri ahal izango dira izendatu beharreko eremu publikoetatik hurbil dauden toponimoen izen normalizatuak edo jatorrizkoak edota izendatze-ohituratik eratorritako izenak. Horretarako, Udala toponimia-azterketaren batean edo antzekoetan oinarrituko da, toki izenaren jatorria bermatzeko. Udala ahaleginduko da izen zaharrenak berreskuratzen, hizkuntza-ondarea berreskuratzeko (II. Eranskina).
- d) Beste batzuk: Jarri ahal izango dira orografia-ezaugarrien izenak (mendiak, mendixkak, muinoak, haranak, ibaiak, errekek eta antzekoak), edota Durangaldean edo Euskal Herrian sustraituta edo jatorrizkoak diren izadi espezieak (txori, landare edo antzekoak).
- e) Zalantza egotekotan Euskaltzaindiari galdetuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren eta Euskararen Erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legearen arabera aholkularia baita euskara gaietan eta toponimian.

Corresponderán a personas o personalidades reconocidas ampliamente por sus méritos, excepcionalmente contraídos con el municipio. sean o no originarios de Berriz. Como mínimo han de transcurrir diez años desde el fallecimiento antes de poder utilizar el nombre.

- b) Nombres de caseríos: Corresponderán a la denominación normalizada de caseríos desaparecidos en el Municipio o en lugar cercano ubicado del lugar a denominar. Para ello el Ayuntamiento se apoyará en un estudio Toponímico o similar que avale la denominación original del caserío. (Anexo I)
- c) Topónimos, nombres de uso o costumbre: Corresponderán a la denominación normalizada u original de topónimos cercanos de los espacios públicos a denominar o de nombres que deriven del uso y costumbre de denominación. Para ello el Ayuntamiento se apoyará en un estudio Toponímico o similar que avale la denominación original del lugar. El Ayuntamiento procurará la recuperación de aquellas que sean más antiguas con el fin de recuperar su patrimonio lingüístico. (Anexo II)
- d) Otros: Corresponderán a aquellos accidentes orográficos como montes, cerros, colinas, valles, ríos, riachuelos o análogos, a especies de la naturaleza como pájaros, plantas o similares, ubicados u originarios del municipio, de Durangalde o de Euskal Herria.
- e) En caso de duda, se consultará con Euskaltzaindia, según el Estatuto de Autonomía, la ley orgánica del 18 de diciembre 3/1979 y la ley 10/1982 para la normalización del uso del euskera, Euskaltzaindia es el órgano consejero en materia de euskera y toponimia.

10. artikulua.

Aplikazio-eremu publikoko izendapenentarako erabiliko den hizkuntza euskara izango da

11. artikulua.

Nahitaez bete beharrekoak izango dira Udalak aplikazio-eremu publikoko izen errotulu edo zenbakiak aldatzeko emandako ebazpenak. Kasu guztietan, ondorioak eta onurak aztertuko dira. Onura edo eragozpen horiek ukituta gertatzen diren pertsonen edo elementuen jakinaraziko zaizkie, organo eskudunek azken erabakia hartu baino lehen. Izena aldatzeak edo ezartzeak ukitutako guztiei entzueraz emateko epe bat emango zaie.

V. KAPITULUA.

ERROTULAZIOA.

12. artikulua.

Errotuluak era berekoak izango dira eta aplikazio-eremu publikoaren oinarritzako identifikazio beharrezkoen erantzun gisa

13. artikulua.

Udalak beharrezkoak diren jardunbideak gauzatuko ditu herria identifikatzeko, seinaleztatzeko eta orientatzeko, bai ibilgailuentzat bai oinezkoentzat. Udalaren ardura izango da kontserbatze- eta mantentze-lanak egitea.

14. artikulua.

Eraikuntza berrietako etxebizitzetara edo eraikuntza berrietara, eskaera egiten duen pertsona fisikoak edo juridikoak ordaindu beharko du errotulazioa

Artículo 10 .

En el uso lingüístico de la denominación del ámbito público de aplicación se utilizará el euskara.

Artículo 11 .

Serán de obligado cumplimiento las resoluciones del Ayuntamiento sobre la modificación de denominación, rotulación o numeración del ámbito público de aplicación. En todos los casos se estudiarán las consecuencias y ventajas de las mismas. Dichas ventajas e inconvenientes serán comunicadas a las personas o elementos afectados, previamente a la toma de decisión final por los órganos competentes. Se concederá un plazo de audiencia a todos los afectados por el posible cambio o implantación.

CAPÍTULO V.

ROTULACIÓN.

Artículo 12 .

La rotulación mantendrá una uniformidad, y atenderá las necesidades básicas de identificación del ámbito público de aplicación

Artículo 13 .

El Ayuntamiento realizará cuantas acciones sean necesarias para identificar, señalar y orientar a la población, sea de carácter rodado o peatonal. Será responsabilidad del ayuntamiento, la conservación y mantenimiento de las mismas

Artículo 14 .

En el caso de que las viviendas o edificios sean de nueva construcción la obligación de la rotulación será de cuenta de la persona física o jurídica solicitante.

15. artikulua.

Bizitegi-eraikinetan, eraikinak identifikatzeko plakek hondo urdina eta gutxi gorabehera 45 x 30 zentimetroko letra zuriak izango dituzte. Plakak bide publikora ematen duen muturren batean jarriko dira, 3-5 metro bitarteko altueran, espaloiarenean kotatik neurturik. Plaka non ezarri erabakitzeko, kontuan izango da argi ikusi behar dela eta ez duela kalterik eragingo eraikinaren estetikan.

16. artikulua.

Zenbakiak dagokienez, plakek hondo urdina izango dute; zenbakiak zuriak izango dira eta neurri hauek izango dute: digitu batekoak 15 x 15 cm-koak izango dira; digitu bikoak, 15 x 20 cm-koak; eta hiru digitukoak, 15 x 25 cm-koak, gutxi gorabehera.

17. artikulua.

Eremu sakabanatuetan, gehienbat gai birziklagarriak aukeratuko dira eta bide seinaleetan egiteko aukera izango da. Gehigarri gisa, Udalaren logo edo armari ofiziala eraman dezakete.

VI. KAPITULUA.

EGINBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.

18. artikulua.

Berrizko herritarrek, oro har, eta pertsona juridikoek, bereziki, laguntzeko betebeharrak izango dute eta ezin dute ukatu, aplikazio-eremu publikoen errotulazioa, adierazle edo zenbakirik.

Artículo 15 .

En edificios residenciales las placas identificativas sobre edificios serán de fondo azul, letras blancas de dimensiones aproximadas de 45 x 30 centímetros. La placa se colocará en el extremo de los mismos que den a la vía pública a una altura de entre 3 y 5 metros, teniendo como referencia la cota de acera. La ubicación se tendrá en cuenta para su clara visualización desde una zona próxima y no desmerezca la estética del edificio

Artículo 16 .

En caso de la numeración serán placas serán de fondo azul, números blancos de dimensiones para un dígito de 15 x 15 cm, para dos dígitos de 15 x 20 cm y para 3 dígitos de 15 x 25 cm aproximadamente.

Artículo 17 .

En zonas diseminadas, para señalizaciones orientativas, se optarán preferentemente por materiales reciclables y podrán realizarse en señalética de tráfico. Adicionalmente pondrán llevar logo o escudo oficial del Ayuntamiento

CAPÍTULO VI.

DEBERES Y RESPONSABILIDADES.

Artículo 18 .

La ciudadanía de Berriz en general y las personas jurídicas en particular, tienen la obligación de cooperar, no pudiendo oponerse a la rotulación e instalación de indicadores y numeración en el ámbito público de aplicación.

19. artikulua.

Debekatuta dago ordenantza honen zigor araubidean ezarritakoa ez betetzea, eta zigorra ezarriko da.

Artículo 19 .

Queda prohibido bajo sanción de infracción el incumplimiento de lo dispuesto en el régimen sancionador de la presente ordenanza

VII. KAPITULUA.

ZIGOR ARAUBIDEA

20. artikulua.

Ordenantza honi aplikatuko zaizkio Toki Araubidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legearen 139., 140. eta 141. artikulua eta beronen osteko aldaketak

Artículo 20 .

Será de aplicación a la presente ordenanza los artículos 139,140 y 141 de la ley 7/1985 y sus posteriores modificaciones de la denominada Ley de Bases de Régimen Local

21. artikulua.

Ordenantza honen arau-haustek oso larritzat, larritzat eta arintzat sailkatuko dira:

Artículo 21.

Las infracciones de la presente ordenanza se clasificarán en muy graves, graves y leves:

a. Oso larriak izango dira:

1. Errotulazio ofizialean, lankidetzan ez jardutea, errotuluak jartzearen aurka jartzea edo beste pertsona batzuen eskubideak edo jarduerak modu baketsuan egitea eragozteak.
2. Errotulazio ofiziala estaltzea edo kalte materiala egitea.
3. Izendapen edo errotulazio ofiziala ez erabiltzea edo baimenik gabe erabiltzea.
4. Udalak edo norbanakoek Udalaren baimenarekin ipinitako seinaleak nahita kalte egitea edo kentzea.

a. Serán muy graves:

1. La no cooperación, oposición a la colocación o la perturbación del pacífico ejercicio de los derechos de otras personas o actividades, en la rotulación oficial.
2. La ocultación o daño material de la rotulación oficial.
3. La no utilización o utilización sin autorización de la denominación y rotulación oficial.
4. Dañar de forma voluntaria o suprimir la señalética colocada por el Ayuntamiento o particulares con autorización de este.

b) Egindako arau-haustearen eta eragindako kalteen intentsitatearen arabera, berauen kalifikazioa larria edo arina izango da:

1. Errotulazio ofiziala egiteko, lankidetzan ez

b) Según la intensidad en la infracción cometida y los perjuicios causados, serán calificadas como graves o leves:

1. La intensidad de la no cooperación,

- jarduteak, errotuluak jartzearen aurka jartzeak edo beste pertsona batzuen eskubideak edo jarduerak modu baketsuan egitea eragozteak duten intentsitatea.
2. Errotulazio ofizialaren estaldurak edo eginiko kalte materialak duen intentsitatea.
 3. Izendapen edo errotulazio ofiziala ez erabiltzeak edo baimenik gabe erabiltzeak duen intentsitatea.
- c) Ordenantza honen edukia beste edozein hauste hutsegite arintzat joko da.

22. artikulua.

Zehapen ekonomikoen mugak honako hauek izango dira:

- a) Oso larriak: 3.000,00 euro arte.
- b) Larriak: 1.500,00 euro arte.
- c) Arinak: 750,00 euro arte.

oposición de la colocación o la perturbación del pacífico ejercicio de los derechos otras personas o actividades, de la rotulación oficial.

2. La intensidad de la ocultación o daño material de la rotulación oficial.
3. La intensidad de la no utilización o utilización sin autorización de la denominación y rotulación oficial.

- c) Cualquier otra infracción del contenido de la presente ordenanza será considerada como falta leve.

Artículo 22.

Los límites de las Sanciones económicas serán:

- a) Muy graves: Hasta 3.000,00 euros.
- b) Graves: Hasta 1.500,00 euros.
- c) Leves: Hasta 750,00 euros.

XEDAPEN IRAGANKORRA.

Lehena: Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena: Ordenantza hau ez da aplikatuko bide publikoen, tokien eta gainerako enizenetarako, baldin eta ordenantza indarrean sartzean ofizialak badira.

Hirugarrena: Salbuespen gisa, ez hirigunean, ez eremu sakabanatuetan, ez industrialdeetan zenbakiak ezin izango dira hurrenez hurrenekoak izan, baldin eta zenbakiok bat ez badatoz indarrean dauden zenbakiekin, edo Hiri-antolamenduko plan orokorrean lehenagotik izendatuta badaude.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Primera: Esta ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Segunda: No serán de aplicación a la presente ordenanza las denominaciones de vías públicas, lugares, etc., que a la entrada en vigor de la presente, mantengan su carácter oficial

Tercera: En casos excepcionales, tanto en el casco urbano, como en diseminado o polígonos industriales, no podrán ser correlativas las numeraciones, cuando entren en conflicto con la numeración en vigor o estuvieran denominados anteriormente por el plan General de Ordenación

I. ERANSKINA (BASERRIAK)

DESAGERTUTAKO BASERRIAK (Toponimia liburua)

- Abaro
- Padura
- Sanantonioaurre
- Txosnagoikoa
- Zelaietazpikoa
- Iturralde
- Olakueta
- Urtiagazelaia
- Usabel
- Kotxera
- Olakua
- Udaletxezarra
- Ugartebidea

ANEXO I (CASERIOS)

CASERIOS DESAPARECIDOS (Libro de toponimia)

- Abaro
- Padura
- Sanantonioaurre
- Txosnagoikoa
- Zelaietazpikoa
- Iturralde
- Olakueta
- Urtiagazelaia
- Usabel
- Kotxera
- Olakua
- Udaletxezarra
- Ugartebidea

II. ERANSKINA (TOPONIMOAK)

TOPONIMIA NAGUSIA

Berrizek historikoki oso erlazio estua izan du Oiz mendiarekin, bere zaintzapean egin izan du bere bidea. Horren testigantza aurkitzen dugu toponimian, soro, landa, baso zein tontorren izenak gure ondarearen zati bat dira, eta Nazio Batuen erakundearen izendapenaren harira guztion betebeharra dela hauek zaintzea. Gure herrian aurkitzen, eta babestu behar ditugun toponimo nagusien artean honako hauek ageri dira:

- **Ametzorbe** (Sarria)
- **Anbotobitxi** (Murgoitio)
- **Andikoaburu** (Andikoa)
- **Arietzu** (Sallobente-Mendibil)
- **Atxoste** (Sallobente-Mendibil)
- **Axmakurra** (Sarria)
- **Berlokiz** (Sarria)
- **Berrizburu** (Eitua)
- **Besoitagain** (Sallobente-Mendibil)
- **Bizkargain** (Sallobente-Mendibil)

ANEXO II (TOPONIMOS)

TOPONIMIA PRINCIPAL

Berriz, históricamente, ha tenido una relación muy estrecha con el monte Oiz y bajo su protección ha encauzado su camino. Y así queda constancia en la toponimia de prados, bosques, cumbres y siguiendo las directrices de la ONU, es obligación de todos/as su cuidado. A continuación presentamos un listado general de topónimos encontrados en el municipio y que es conveniente proteger:

- **Ametzorbe** (Sarria)
- **Anbotobitxi** (Murgoitio)
- **Andikoaburu** (Andikoa)
- **Arietzu** (Sallobente-Mendibil)
- **Atxoste** (Sallobente-Mendibil)
- **Axmakurra** (Sarria)
- **Berlokiz** (Sarria)
- **Berrizburu** (Eitua)
- **Besoitagain** (Sallobente-Mendibil)
- **Bizkargain** (Sallobente-Mendibil)

- **Egiluze** (Sarria)
 - **Elorriagagana** (Okango)
 - **Garagorbe** (Murgoitio)
 - **Gorliz** (Andikoa)
 - **Intxaurtxuaga** (Okango)
 - **Ipiñarrieta** (Sarria)
 - **Jandolamendi** (Sarria)
 - **Kurutzebarri** (Andikoa)
 - **Larizgain** (Okango)
 - **Legaño** (Sallobente-Mendibil)
 - **Martilar** (Murgoitio)
 - **Olasamendi** (Sallobente-Mendibil)
 - **Osmagain** (Sallobente-Mendibil)
 - **Otsaitaburu** (Eitua)
 - **Santikurutz** (Andikoa)
 - **Santrokaz** (Sallobente-Mendibil)
 - **Sarrimendi** (Sarria)
 - **Solaburu** (Murgoitio)
 - **Torosto** (Sallobente-Mendibil)
 - **Zazpiatxeta** (Sarria)
- **Egiluze** (Sarria)
 - **Elorriagagana** (Okango)
 - **Garagorbe** (Murgoitio)
 - **Gorliz** (Andikoa)
 - **Intxaurtxuaga** (Okango)
 - **Ipiñarrieta** (Sarria)
 - **Jandolamendi** (Sarria)
 - **Kurutzebarri** (Andikoa)
 - **Larizgain** (Okango)
 - **Legaño** (Sallobente-Mendibil)
 - **Martilar** (Murgoitio)
 - **Olasamendi** (Sallobente-Mendibil)
 - **Osmagain** (Sallobente-Mendibil)
 - **Otsaitaburu** (Eitua)
 - **Santikurutz** (Andikoa)
 - **Santrokaz** (Sallobente-Mendibil)
 - **Sarrimendi** (Sarria)
 - **Solaburu** (Murgoitio)
 - **Torosto** (Sallobente-Mendibil)
 - **Zazpiatxeta** (Sarria)

HIDRONIMIA

Berrizko Toponimia Mapan, 2013ko otsailean argitaratutakoa, hainbat leku-izenen artean hidronimiarekin lotuta dauden izenak ageri dira. Erreken kasuan, gehienetan ubidearen inguruan, goialdean zein behealdean, dagoen baserri baten izena hartu dute. Batzuetan ur bide hauek kofradien arteko mugak markatu edo definitu dituzte. Aipagarria da, batzuetan erreka berberak izen desberdinak dituela bere ubidearen zati desberdinetan. Horrela, Murgoitioko Zubierrementaria baserriaren inguruetatik pasatzen den ubidea Loitzaterreka moduan ezagutzen badute, Loitzate baserrian aldiz, Uriberreka moduan ezagutzen da. Eta gauza bera dugu Sallobente-Mendibil / Okango aldean. Olabe inguruan goitik datorren ubidea Lasuenerreka moduan ezagutzen bada ere, Lasuen etxeen inguruan aldiz, Olaberreka moduan ezagutzen da, Olaberantz goitik behera doazen urak, alegia. Berrizen aurkitzen eta babestu behar diren hidronimoak honako hauek dira:

- **Agirrerreka** (Sallobente-Mendibil),
- **Aiagaerreka** (Andikoa)
- **Albaierreka** (Andikoa),
- **Altzerreka** (Murgoitio),
- **Ametzuerreka** (Eitua),
- **Arlabanerreka** (Sarria),
- **Arminerreka** (Andikoa),
- **Arrierreka** (Sarria - Eitua).
- **Garratzerreka** (Murgoitio),
- **Iturritxueta** erreka (Sallobente-Mendibil)

HIDRONIMIA

En el mapa toponímico publicado en febrero del 2013, encontramos hidrónimos entre las denominaciones de lugar. En el caso de los ríos, normalmente adoptan el nombre del caserío que se encuentra en la parte de arriba o debajo del cauce. Otras veces, el cauce del río delimita las cofradías. Es de destacar, que a veces el mismo río recibe distintas denominaciones en los distintos lugares del recorrido. Así, el río que discurre por el caserío Zubierrementaria de Murgoitio lo conocen como Loitzaterreka. Ese mismo río, alrededor del caserío Loitzate se conoce como Uriberreka. Y tenemos el mismo caso en Sallobente-Mendibil (Okango). En la zona de Olabe, al río se le llama Lasuenerreka. Y en cambio, llegado al paraje casa Lasuen, se llama Olaberreka, como las aguas que van hacia Olabe. Y los hidrónimos encontrados en el municipio y que se deben de conservar:

- **Karkamo** erreka (Andikoa-Sarria),
- **Lasuenerreka** (Sallobente-Mendibil)
- **Loitzaterreka** (Murgoitio)
- **Okaerreka** (Sallobente-Mendibil)
- **Olaberreka** (Sallobente-Mendibil),
- **Uriberreka** (Murgoitio)
- **Urzabal** (Murgoitio – Eitua - Okango)
- **Urzuloerreka** (Sarria)
- **Zalduerreka** (Murgoitio – Eitua - Okango)

Toponimia nagusia, leku izenaren garrantziaren araberako sailkapena. Kontuan izatekoa leku izena hautatzerakoan:

1. Martilar (Murgoitio)
2. Torosto (Sallobente-Mendibil)
3. Ametzorbe (Sarria)
4. Anbotobitxi (Murgoitio)
5. Sarrimendi (Sarria)
6. Arietzu (Sallobente-Mendibil)
7. Garagorbe (Murgoitio)
8. Jandolamendi (Sarria)
9. Osmagain (Sallobente-Mendibil)
10. Egiluze (Sarria)
11. Kurutzebarri (Andikoa)
12. Santrokaz (Sallobente-Mendibil)
13. Zazpiatxeta (Sarria)
14. Olasamendi (Sallobente-Mendibil)
15. Otsaitaburu (Eitua)
16. Santikurutz (Andikoa)
17. Andikoaburu (Andikoa)
18. Atxoste (Sallobente-Mendibil)
19. Axmakurra (Sarria)
20. Berlokiz (Sarria)
21. Elorriagagana (Okango)
22. Gorliz (Andikoa)
23. Intxaurtxuaga (Okango)
24. Ipiñarrieta (Sarria)

Clasificación de topónimos, según su relevancia. Listado a tener en cuenta a la hora de escoger un nombre de lugar:

1. Martilar (Murgoitio)
2. Torosto (Sallobente-Mendibil)
3. Ametzorbe (Sarria)
4. Anbotobitxi (Murgoitio)
5. Sarrimendi (Sarria)
6. Arietzu (Sallobente-Mendibil)
7. Garagorbe (Murgoitio)
8. Jandolamendi (Sarria)
9. Osmagain (Sallobente-Mendibil)
10. Egiluze (Sarria)
11. Kurutzebarri (Andikoa)
12. Santrokaz (Sallobente-Mendibil)
13. Zazpiatxeta (Sarria)
14. Olasamendi (Sallobente-Mendibil)
15. Otsaitaburu (Eitua)
16. Santikurutz (Andikoa)
17. Andikoaburu (Andikoa)
18. Atxoste (Sallobente-Mendibil)
19. Axmakurra (Sarria)
20. Berlokiz (Sarria)
21. Elorriagagana (Okango)
22. Gorliz (Andikoa)
23. Intxaurtxuaga (Okango)
24. Ipiñarrieta (Sarria)